

TERRORISMOAREN BIKTIMEN ALDARRIKAPENA

ETAren suetenaren iragarpenak sortutako espektazioaren aurrean, aldarrikapen hau sinatzen ditugun indarkeria eta terrorismoaren biktimak, geure buruaren, izenean ez beste inorenean, zera azaldu nahi dugu:

Hogeitahamar urte baino gehiagotan zehar, euskal gizarteak eta gainontzeko espainiako gizarteak izu terrorista eta horrelako delituekin zerikusia duten indarkeri ekintzen gorabeherak jasan izan dituzte. Suetenaren iragarpenak, momentuz hildako berriak ez gertatuz, sortzen duen itxaropenetik, ezin dugu ahaztu milaka pertsona, izuaren biktimak, Euskal Herriko sasi-askapenaren aldeko indarkeriaren erabilpen fanatikoaren ondorioz, geure bizia zapuztuta ikusi dugula.

Nahiz eta inizatiba batzuk terrorismoaren biktimen egoera hobetzen saiatu, orokorrean, ahaleginak ez dira behar bestekoak izan. Badira arazo ekonomikoak dituzten biktimak, berriro laneratzeko zailtasunak eta baita laguntza psikosoziala behar dutenak ere. Biktima bakoitzak badu terroristek ez ezik, baita inoiz beraietaz arduratu ez diren instituzioen bazterketak sortutako izuaren gorabehera-sorta propioa. Bereziki, biktima askok bizi izan dute minez Euskal Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeak inoiz ez interesatzea beraietaz eta bai hiltzaile eta bere laguntzaileetaz, ordea. Ildo berean, salatu behar dugu ekintza terroristen urte guzti hauetan zehar Euskal Elizaren hoztasuna.

ETA izan da orain dela urte gehiegi hasitako izuaren historiaren protagonista nagusia, baina ezin dugu ahaztu beste talde terroristek ere (Triple A, Batallón Vasco-español, GAL, Comandos Autónomos Anticapitalistas eta kale indarkerian aritu diren talde inkontrolatuak) izua eta sufrimendua sortu dutela gure artean.

Gure jarrera argia da eta giza bizitza truke-txanpontzat hartzearen gaitzespenetik sortzen da; ez dugu inongo mota eta ideologiako salbatzailerik behar; terrorismoak eta antiterrorismoak nazka ematen digute; estatu demokratikoaren zehaztapen eta kontrolik gabeko, legezkanpoko eta legezkontrako edozein indarkeria.

Terrorismoaren biktimak ez dira hogeitamahir urtetako hilketen arduradunak. Arduradun bakarrak hiltzaileak eta beraien laguntzaileak dira. Burututako hilketen ondorioz abantaila politikoak lortzea, hiltzaileei hiltzea errentagarria dela esatea izango litzateke, eta biktimei, hilketak, mehatxuak, etab., zerbaiteko balio izan dutela eta, beraz, justifikatuak zeudelako.

Biktimei eskuzabaltasuna eskatzen zaie, barkatzea eta ahaztutzea, eta bitartean, hiltzaileei ez zaie beraien hilketak aitortzea inoiz eskatu. Ahaztuz ez da posible pakea eraikitzea. Errekonziliazioak ez du barkamena eta ahanztura esan nahi, denontzako justizia baizik. Terroristek ez dute inoiz onartu erratu egin direnik, hogeitahamar urteotan beraien asmo totalitarioak inposatzeko indarkeriaren bidea hartuz; eta hau, Euskal Herriko biztanleek hauteskundeetan agertzen genuen gogoaren aurka.

Ez da, inposatu zaigun askatasun eza eta mehatxuaz hitz egiten, baina bai biktimak eskuzabalak eta ulerkorrak izan behar dugula, gorrotoaren paradigmatzat aurkeztuz, inongo biktimak ez duela bere esku inongo mendeku ekintzarik hartu gogoratu gabe.

Ezin izango dugu jasan hiltzaileak edo hiltzen lagundu dutenak egindakoaz harrotu daitezen, heroen ekintzat hartu hilketak edo heroetzat hartu gure hiltzaileak.

Gertatua, egia, ezagutu behar da. Alde honetatik, martxan dauden epai eta polizi prozesuak bukatzea, heriotz bakoitzaren inguruan dauden arduradun guztien aurkikuntza, , edozein inpunitate motaren ezabaketa eta ardura judizial guztien arazketa guztiz beharrezkoak dira abian jarri nahi den edozein pake prozesuan.

Gure eritzia kontutan hartu behar da eta jakinen gainean egon behar dugu arazoaren konponbidean ematen den urrats bakoitzaz. Manipulatuta sentitzen gara, errekonziliazioko protagonistatzat aurkezten gaituztenean. Ezinezkoa da, barkamena eskatzen ez duenarekin edo egindako mina aitortzen ez duenarekin birradiskidetzea. Zein eliz erakunde, politiko edo soziala ari da preso terroristak konbenzitzen biktimei barkamena eska dezaieten?

Indarkeria eta terrorismoaren behin-betiko uzterik gabe, egindako minaren aitortenik gabe eta biktimen aldeko atentziorik gabe birradiskidetzea ezinezkoa da. Hiru oinarri hauetaz abiataurik, biktima bakoitzak erabakiko du errekonziliazioa egin nahi izango ote duen ala ez. Ez dugu nahi pakearen biktimak ere izan.

Donostia, 1998ko azaroaren 28an.